


BIZITEGI ERAIKINA
C MAILA**PRIM 59**

Egilea eta data: Ramon Cortazar, 1923

Deskribapena

Hiru fatxadara orientatutako eraikina. Behe oin bat eta sei goi oin ditu, azkena atzeraemana, lau izkinetan salbu. Harlanduzko fatxadak mentsulen gaineko gorputz irtenez hedatzen dira bigarren oinetik, bi izkinetan eta mehelinaren alboko tartean. Dorre gisa gailentzen dira, azken oinaren gainerakoaren atzeraemanguneagatik. Behe oinean, era berean, aurreratutako gorputz bat dago, Gernikako Arbolaren pasealekuaren parean.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra:

Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

2.- Berariazko erregimena.

A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: ez.

B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.

C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.

D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.